

7.12.2012 3  
615

“Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan

honoko mozioa aurkezten du:

## MOTIBAZIOA

Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformarako Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkutatzen da: soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkariei eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean: enpresa-hitzarmenei lehentasuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutégia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeke dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, mozioa hau aurkeztu nahi dugu, Oñatiko Udaleko OSOKO BILKURAK eztabaidatu eta onar dezan:

1. Oñatiko Udaleko kideok lan-erreforma salatu nahi dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.
2. Oñatiko Udaleko kideok Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen diogu.
3. Oñatiko Udaleko kideok Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeke aukera euskal herritarroi emango diguna.
4. Oñatiko Udaleko kideok herritarrei dei egiten diegu martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean eta antolatutako mobilizazioetan parte har dezaten.
  - 12:00etan elkarretaratzea Oñatiko Plazan
  - 12:00etan manifestaldia Donostian
  - 19:00etan manifestaldia Arrasaten
5. Oñatiko Udaleko kideok Euskal legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan-erreformaren aurkako botoa emateke eskatzen diegu.

Oñatin 2012ko martxoaren 22a.

